

UNIBERTSITATEA BERRESKURATU



Aitor Castañeda Zumeta*

Autoritate unibertsitarioen kezka larria jaso dute azken boladan tirada handiko hainbat egunkarik; ikasleak klasera ez doazela kexu dira, asistentzia sustatzen duen sistema martxan jarri zenetik estudianteen inplikazioak behera egin duela.

Kataluniako berripaper batek ikasleen erantzunak ere jaso ditu; arazo «estruturalei» men egiten diete, eta unibertsitatearen urruntasunaz mundu «errealarekiko». Ni EHUko irakasle naizen aldetik —gizarte zientzietako alorrean— fenomeno hau azaltzea zin dagit, metodo enpirikorik gabe bada ere. Ez daukat beraz inkesta sakonik, baina bai urteek emandako eskarmentu pittin bat.

Lehenik eta behin, instituzioa bera dago. Europako 'Bologna plana' delakoa 1999an martxan jarri zenetik, garrantzi asko eman zaio ebaluazio jarraituari, hots: ikasleria klasera edo seminarioetara etorri, eta lanak egin ahala ikasi eta gairatzea.

Horrek pisu espezifiko asko kendu dio azterketa tradizionalari —memoriari, zera—, baina ideia okerra ere zabaldu du: ikasi barik, gairatzea daitekeela —unibertsitatean ere bai—. Hau horrela bada, aski da tarteka lantxoak burutzea, eta amaieran nota justu baten bidez gairatzea. Portaera hori unibertsitateak berak sustatu du Europa osoan, eta bera da zentzu horretan errudun..

Bestetik, ikasleriaren hezkuntza bera dago, eskolan zein etxean. Gaur egungo gazteak dopamina bilatzen dute etengabe —horra sare sozialak demostrazio gisa—. Entretenitua ez den zerbait —dibertigarria ote da fisika kuantikoa?—, edo unean bertan emaitza ikusgarriarik ematen ez duen ezer —ikasketa prozesu orok denbora behar du—, ez du atentziorik merezi. Areago; irakasleak ez badu betebeharrak astunok egitea derrigortzen —zer da derrigorrezkoa unibertsitatean? — ez dira, beraz, egin behar.

Oñatiko eta Nafarroako unibertsitateen sortzaileen ideiak lotura gutxi dute 2000 urtetik hona sustatzen ari den unibertsitate merkantilista eta utilitaristarekin. Are gehiago: unibertsitatea «praktikoagoa» egiteak jada ez dauka zentzu handirik, adimen artifiziala bete-betean sartu baitzaigu, eta klaseetan eskatzen diren atazak askoz arinago eta hobe egin ditzake txatbot batek edozein i(r)akasle bakoitzari. Zein da, beraz, estudiantek makina batek egin dezakeena egiten trebatzearen zentzua?

Oñatiko eta Nafarroako unibertsitateen sortzaileen ideiak lotura gutxi dute 2000 urtetik hona sustatzen ari den unibertsitate merkantilista eta utilitaristarekin

Zertarako, orduan, klasera joan? Unibertsitatea gizaki askeak sortzeko sortu zen, zientzian eta arteetan iaioak, eta arazo unibertsalei (universitas) konponbideak proposatzeko gauza. Unibertsitatearen inguruko bere gogoeten artean hala zioen San Josemaria Escrivá de Balaguer-ek: «Estamos convencidos de que en un clima así se forman almas con libertad interior, y se forjan hombres capaces de vivir responsablemente» (Erroma, 1965.XI.21). Hori izan zen, besteak beste, 431 urte lehenago Errodrigo Mercado de Zuazolak Sancti Spiritus Unibertsitatea sortzera bultzatu zuen printzipioa, letrek «ohorea eta duintasuna» baitzekarten.

Unibertsitateak etorkizunari eutsi nahi badio bere erroretara itzuli behar du, filosofoen eta programatzaileen mendea baita hau, pentsamendua, gogoeta eta irizpidea nagusi izango dituen testuinguru hiperteknologizatu batean. Hori lortzeko, ikasleria halako giroan sartu behar da, non maila altuko irakurketa bultzatu behar den eta etorkizunean gizarteak profitatuko dituen profesional irizpidetsuak garatuko diren —«almas con libertad interior», «capaces de vivir responsablemente»—. Baliteke helburu horietara bideratutako metodoek orain arte Europan sustatzen aritu izan diren planekin haustura suposatzea. Baina zergatik obeditu ezagupenaren sistema altuena mespretxatzen duten plan burokratikoak?

* Autorea Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitateen Ministerioak finantzatutako proiektu bateko ikerlaria da (PID2022-138385NB-I00), eta baita Euskal Kristau Ondarea taldeko kidea ere.